

Autoebaluaketa: II ZATIA (6-8 ikasgaiak)

- 1.- Transmisio kolinergikoari dagokionez, zein da zuzena?
 - a) Barrarik sistema autonomoan gertatzen da
 - b) Azetilkolina suntsitzen duen entzima kolina azetiltransferasa da
 - c) Azetilkolinestarasaren inhibizioak transmisio kolinergikoa kitzikatzen du.
 - d) Hartzaile muskarinikoak sodioarekiko ioi erretenak dira
 - e) Hartzaile nikotinikoak G proteinekin lotutako hartzaileak dira

- 2.- Ondoko farmakoetatik, zein erabiltzen *Myasthenia gravis* diagnostikoa egiteko?
 - a) Naloxona
 - b) Atropina
 - c) Edrofonio
 - d) Sukzinilkolina
 - e) Parazetamol

- 3.- β -adrenergiko antagonisten erabilerari dagokionez, zein da zuzena pazienteak asaldura kardiobaskularrak pairatzekotan?
 - a) Bronkozabaltzaileak direnez, erabigarriak dira asma duten pazienteak tratatzeko
 - b) Kirolarekiko erantzuna baldintza dezakete paziente hauengan.
 - c) Katarro-kontrako botikekin ez dute inolako elkarrekintzarik sortzen
 - d) β -adrenergiko antagonistek, ez-espezifikoek, gihar ildaskatuko dardarak eragiten dituzte
 - e) Bihotza kitzikatzen dute

- 4.- Nerbio sistema autonomoaren farmakologiari dagokionez, zein da zuzena?
 - a) Farmako antimuskarinikoen aho lehorra sortzen dute
 - b) Beta2 agonistak asmaren kontra erabiltzen dira
 - c) Adrenalina hipertentsioaren kontra erabilgarria da
 - d) Antagonista muskarinikoen bihotz erritmoa azkartzen dute
 - e) A eta B

- 5.- Toxina botulinikoari dagokionez, zein da aukera zuzena?
 - a) Xafla neuromuskularreko azetilkolinaren askapena murrizten du
 - b) Ekintza mekanismoa zentrala da
 - c) Hartzaile opioideen aktibazioaren ondorioz ekintza analgesikoa dauka
 - d) Espatizitate lokaren kontra erabilgarria da.
 - e) A eta D zuzenak dira